

Bergaran, bi mila eta hogeita biko apirilaren hogeita zazpian, ondorengoak


### BILDU DIRA:

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari, M<sup>a</sup> Concepción Ugalde Izeta udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestaldetik, Iratxe Esnaola Arribillaga, 44161019F NAN zenbakiduna, Olaso Dorrea Fundazioko lehendakaria eta Bergarako San Pedro kalea, 2an helbideratuta dagoen Olaso Dorrea Fundazioaren izenean.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu diote elkarri eta honako hau

### ADIERAZI DUTE



1. 2021eko martxoaren 1ean Bergarako udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horretan Fundazioak Olaso Dorrean bisita gidatuak egiteko konpromisoa hartzen zuen, besteak beste.

Hitzarmen horren lehenengo klausulan zehazten zen honako hau;

LEHENENGOA.- *Olaso Dorrea Fundazioak bisita gidatuei dagokienean honako konpromisoak hartzen ditu:*

- *Eraikinaren bisita gidatuak antolatzea. Hilean hiru bisita eskainiko ditu eta horretarako egunak bi aldeen artean adostuko dira.*

*Hiru bisita horietatik bi egun berean egingo dira, bi txandetan. Goizeko 10:00etan euskaraz eta 12:00etan gazteleraz; eta beste egun batean hirugarrena, euskaraz.*

- *Bisita finko horiez gain, herritarren eskaerak ere bideratzeko aukera egongo da.*

- *Bisita horien iraupena ordu t'erdi ingurukoa izango da. Bertan eraikina bisitatzeaz gain bideo bat erakutsiko da, eta bisita gidatuaren gidoia bi aldeen artean adostuko da.*

- *Bisita gidatu horiek egiteko pertsonala Fundazioak jarriko du, eta Fundazioa ere izango da eraikinean bisita egitean bisitariek jasan ditzaketen kalteren erantzule.*

- *Bisita gidatuetan gehienez ere hamabi (12) pertsonak hartu ahal izango dute parte. Dena den, COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz posible da pertsona kopurua murriztu edo bisitak bertan behera utzi behar izatea.*

- *Bisitagatik bisitariei ezer ez kobratzea.*

2. Olaso Dorrea Fundazioak bisiten bigarren txandaren hasiera atzeratzea eta 12:15ean hastea, eta Udalbatzak 2022ko apirilaren 25eko plenoan onartu zuen.

Hori dela-eta, bi aldeek ondorengo klausulak dituen aldaketa hitzartu dituzte:

## KLAUSULAK

LEHENENGOA.- 2021eko martxoaren 1ean sinatutako hitzarmenaren lehenengo klausula aldatzea honela utziz:

LEHENENGOA.- *Olaso Dorrea Fundazioak bisita gidatuei dagokienean honako konpromisoak hartzen ditu:*

- *Eraikinaren bisita gidatuak antolatzea. Hilean hiru bisita eskainiko ditu eta horretarako egunak bi aldeen artean adostuko dira.*

*Hiru bisita horietatik bi egun berean egingo dira, bi txandetan. Goizeko 10:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz; eta beste egun batean hirugarrena, euskaraz.*

- *Bisita finko horiez gain, herritarren eskaerak ere bideratzeko aukera egongo da.*

- *Bisita horien iraupena ordu t´erdi ingurukoa izango da. Bertan eraikina bisitatzeaz gain bideo bat erakutsiko da, eta bisita gidatuaren gidoia bi aldeen artean adostuko da.*

- *Bisita gidatu horiek egiteko pertsonala Fundazioak jarriko du, eta Fundazioa ere izango da eraikinean bisita egitean bisitariek jasan ditzaketan kalteren erantzule.*

- *Bisita gidatuetan gehienez ere hamabi (12) pertsonak hartu ahal izango dute parte. Dena den, COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz posible da pertsona kopurua murriztu edo bisitak bertan behera utzi behar izatea.*

- *Bisitagatik bisitariei ezer ez kobratzea.*

BIGARRENA.- Hitzarmen honetan zehaztuta ez dagoenean 2021eko martxoaren 1ean zehaztutakoak indarrean jarraituko du.

Eta dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute bi aldeek, nik, idazkariak, guztia ziurtatzen dudalarik.

Izpta.: Gorka Artola  
Bergarako alkatea



Izpta.: Iratxe Esnaola Arribillaga  
Olaso Dorrea Fundazioko lehendakaria

Izpta.: M<sup>a</sup> Concepción Ugalde  
Bergarako Udaleko idazkaria